

# Abarak

GORKA BEREZIARTUA

## Erakunde publikoei emailuka

JOAN DEN ASTEAN jaso genuen buletina, bostehungarrena. Denbora ez doala alferrik esplikatz zikindu zitekeen orrialde hau, esanez, adibidez “bostehun Literatur Emailu; alajaina; marka da gero”; eta esker-erakunde emango genizkieke Armiarma.com atariar arduratzen diren lagunei horrelako zerbitzu txukunarengatik; eta artikulua nahikoa koipeztatua ez balego ordurako, errematea ere eman geniezaioke “ea beste bostehun ere etortzen diren txintxo-txintxo, banaka-banaka, astero-astero, gure bihotzetako e-postetara” bezalako kurtsikeriaren bat jarritz –ofizio gutxiko kazetariok askotan idazten baititugu tankerako bukaera borobil ustekoak artikulua nola amaitu ezin asmatuz gabiltzanean–; sindudarik gabe, elkarki bizkarrekoak eman eta denekin ondo geratzea izaten da prezeptiboa hau bezalako efemeride-artikuluetan.

Ez daukazu ba gogorik, hara. Eta ez Armiarma.com egiten dutenek merezi ez dutelako, ez, zalantza daukazulako baizik, ea zu ote zaren, erabiltzaile bakarti anonimo hori, horrelako zerbitzua klik bitan eta doan edukitzeagatik eskerrak ematen hasi beharko litzatekeen lehenengoa. Are, zalantza daukazulako horrelako webguneak eskatzen duen bilaketa, sailkatze eta digitalizatzeko lan eskerga argitaletxe batek (Susak) hartu behar ote lukeen bizkar gainean eta ez erakunde autonomiko, foral, unibertsitario edo, sikiera, lokalen batek. Ez ote diren horrelako instituzioak, hain zuzen, Literatur Emailuak bostehungarrenera iritsi izanagatik zorionak, eskerrak eta bibak partitzen hasi beharko liratekeen aurrenekoak, beraiei egitea tokatzen zaiena –eta egin ez dutena– besteek egin dutelako. Zorionak beraz, baimenik gabe emana bada ere, haien partez. ■



gogorik, hara. Eta ez Armiarma.com egiten dutenek merezi ez dutelako, ez, zalantza daukazulako baizik, ea zu ote zaren, erabiltzaile bakarti anonimo hori, horrelako zerbitzua klik bitan eta doan edukitzeagatik eskerrak ematen hasi beharko litzatekeen lehenengoa. Are, zalantza daukazulako horrelako webguneak eskatzen duen bilaketa, sailkatze eta digitalizatzeko lan eskerga argitaletxe batek (Susak) hartu behar ote lukeen bizkar gainean eta ez erakunde autonomiko, foral, unibertsitario edo, sikiera, lokalen batek. Ez ote diren horrelako instituzioak, hain zuzen, Literatur Emailuak bostehungarrenera iritsi izanagatik zorionak, eskerrak eta bibak partitzen hasi beharko liratekeen aurrenekoak, beraiei egitea tokatzen zaiena –eta egin ez dutena– besteek egin dutelako. Zorionak beraz, baimenik gabe emana bada ere, haien partez. ■

gogorik, hara. Eta ez Armiarma.com egiten dutenek merezi ez dutelako, ez, zalantza daukazulako baizik, ea zu ote zaren, erabiltzaile bakarti anonimo hori, horrelako zerbitzua klik bitan eta doan edukitzeagatik eskerrak ematen hasi beharko litzatekeen lehenengoa. Are, zalantza daukazulako horrelako webguneak eskatzen duen bilaketa, sailkatze eta digitalizatzeko lan eskerga argitaletxe batek (Susak) hartu behar ote lukeen bizkar gainean eta ez erakunde autonomiko, foral, unibertsitario edo, sikiera, lokalen batek. Ez ote diren horrelako instituzioak, hain zuzen, Literatur Emailuak bostehungarrenera iritsi izanagatik zorionak, eskerrak eta bibak partitzen hasi beharko liratekeen aurrenekoak, beraiei egitea tokatzen zaiena –eta egin ez dutena– besteek egin dutelako. Zorionak beraz, baimenik gabe emana bada ere, haien partez. ■

**Larrun** 157  
www.argia.com/larrun

**EMILIO MAJUELO**  
Begirada sakon bat  
historiari, Nafarroatik

«Euskal Herria  
herri zati bat da,  
horretan  
sinesten duen  
parte kontzientea»

